



ESKOLA-KIROLEKO HARMAILETAN ERRESPECTUA SUSTATZEKO JARDUERA-PROTOKOLOA

Edozein parte-hartzailereren edo ikusleren aurkako norgehiagokan edo lehiaketan zehar errespetu-faltak edo hitzezko indarkeria hautematen bada, epaileak honela jokatu beharko du:

A) OINARRIZKO JARDUERA:

Ondorengo jokabideen aurrean: lehiaketako epaileen edo beste parte-hartzaile/ikusle batzuen jardunaren aurkako protesta errepikatuak edo gehiegizkoak, edo aipaturiko pertsona horien aurkako oharpenak egitea eragabekeriaz.

LEHENENGO EGOERA: PARTIDA/LEHIAKETA GELDITZEA

Epaileak partida/lehiaketa geldituko du eta entrenatzaileari edo entrenatzaileei jakinaraziko die hitzezko indarkeria dagoela, eta horiek egileei ohartarazi beharko diete beren jarrera utz dezaten.

BIGARREN EGOERA: PARTIDA/LEHIAKETA ALDI BATERAKO ETETEA

Protestek edo oharpenak jarraitzen badute, edo dagokion entrenatzaileak ez badu lehen egoeran ezarritakoa bete, epaileak aldi baterako etengo du partida.

Epaileak taldeetako/kirolarietako entrenatzaileei ohartaraziko die errespetu faltak irauten badu partida bertan behera geratuko dela. Hitzezko indarkeriaren egileei egoera horren berri eman beharko diete.

HIRUGARREN EGOERA: PARTIDA/LEHIAKETA BEHIN BETIKO BERTAN BEHERA UZTEA

Ahozko indarkeriak irauten badu edo dagokion entrenatzaileak bigarren egoeran ezarritakoa bete ez badu, epaileak partida/lehiaketa bertan behera utziko du eta taldeak/kirolariak aldageletara erretiratuko dira.

B) SALBUESPENEZKO JARDUERAK EGOERA LARRI EDO OSO LARRIETAN:

Hauek dira egoera larriak edo oso larriak: mehatxuak, larderiak, irainak, adierazpen arrazistak, xenofoboak, sexistak edo homofoboak.

Epaileak dagokion entrenatzaileari edo entrenatzaileei eskatu ahal izango die jakinarazteko gertaeraren egileei partida bertan behera geratuko dela instalazioa uzten ez badute. Beren borondatez egiten ez badute, amaitutzat emango da partida/lehiaketa. *Ezin izango dira instalaziotik bota gertakariaren erantzuleak; aitzitik, beren borondatez egiteko eskatuko zaie.

Aurreko jarduketaren bat aplikatu behar izan bada, epaileak partidako/lehiaketako aktan edo txostenean jasoko ditu gertatutako gorabeherak, Lehiaketa Batzordeak dagozkion neurriak har ditzan.



Epailearen erantzukizuna da protokolo honetan aurreikusitako jarduerak aplikatzea.

Nolanahi ere, honako pertsona hauek eskatu ahal izango diote protokolo honetan aurreikusitako jarduera-neurriak aplikatzeko:

- Parte hartzen duten erakundeetako baten arduraduna
- Erakundeko adingabea babesteko ordezkaria (LOPIVI)
- Lehiaketan parte hartzen duten taldeetako edo kirolarietako entrenatzaileak edo delegatuak.

Nolanahi ere, eskola-kiroleko programan alta emanda egon behar duten pertsona horiek, dagokien egoeran, epailea lagundu beharko dute neurriak aplikatzen.